

ASTEARTEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2019ko EKAINAREN 25a. 18:30.

ASTEARTEA (2019/06/25)

Barnealdean zerua hodei gutxirekin egongo da, tarteka hodeitsu erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin; kantauri isurialdean zerua tarteka hodeitsu egongo da behe-hodeiekin. Zaparrada txiki-ertainak eta trumoiak botatzeko probabilitatea txikia da, batez ere mendebaldean. Ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, azken orduetan barnealdean ahula eta aldakorra, kostaldean mendebal-osagaikoa.

Temperaturak (°C)	
<i>Maximoa</i>	
Donostia	23
Bilbao	23
Gasteiz	31
Arrasate	28

ASTEAZKENA (2019/06/26)

Goiz-lanbroa. Zerua oskarbi edo hodei gutxirekin egongo da, arratsaldean bero-hodei batzuk garatuko dira; goizaldean eta goizean goiz kantauri isurialdean zerua tarteka hodeitsu egongo da behe-hodeiekin. Barnealdean hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogor batzuekin haizeguneetan; egunaren erdiko orduetan kostaldean eki/ipar-ekialdera aldatuko da, arratsaldean mendebal/ipar-mendebaldera eta bolada gogorrekin. Temperatura minimoak gutxi igoko dira, maximoak kantauri isurialdean nabarmen edo asko igo eta gainerako tokietan nahikoa edo nabarmen igoko dira.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	18	32
Bilbao	19	36
Gasteiz	15	36
Arrasate	17	37

OSTEGUNA (2019/06/27)

Egunaren lehenengo partean zerua oskarbi edo hodei gutxirekin egongo da, arratsalde-gau partean tarteka hodeitsu erdi mailako hodei eta goi-hodeiekin. Kostaldean zerua behe-hodeiekin tarteka hodeitsu egoteko probabilitatea txikia da. Barnealdean hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin, azken orduetan ipar-osagaikoa eta ahula. Egunaren erdiko orduetan kostaldean eki-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, arratsalde-gau partean mendebal/ipar-mendebaldera aldatuko da, bolada gogorrekin. Temperatura gutxi edo nahikoa igoko da.

OSTIRALA (2019/06/28)

Zerua hodei gutxirekin egongo da, goi-hodei batzuekin, batez ere ekialdean; egunaren bigarren partean kantauri isurialdean behe-hodeiak ugarituz joango dira. Barnealdean haize ahula eta aldakorra ibiliko da, arratsaldean iparraldekoa edo ipar-ekialdekoa eta tarteka bizi; kostaldean mendebal-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, egunaren erdiko orduetan ipar-osagaira aldatuko da. Temperatura minimoetan aldaketarik ez, maximoak kantauri isurialdean nabarmen edo asko jaitsiko dira, Arabako hegoaldean aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko dira.